AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2026-11-27 / 921 ZENBAKIA / 22. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Txilaba jantzita ospatu zuten Urnietako Kuadrillen eguna

Egun osoko egitaraua antolatu zuen Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak / 6-7

Hauteskundeak, igandean: Gipuzkoan hamaika hautagaien artean erabakitzeko aukera izango da / 3

Azaroak 25: Antzezlan bana, Bastero Kulturgunean eta Sarobe antzokian, asteburu honetan / 14

Amaia Agirre Mendi Zinemaldia, ostegunean eta ostiralean, Sarobe antzokian / 13

Winter Series Andoain: gozatu ederra hartu zuten Arratera hurbildu ziren zaletuek / 12



HAUTESKUNDE KANPAINAK ETA LEHEN SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

ENEKO EGIBAR ARTOLA ALBAITARIA ETA POLITOLOGOA

Soilik PP eta VOXen ardura da lehen sektorea?

Posible al da etorkizunari ateak irekitzea bakarrik 'betikoari' eta dirulaguntzei begiratuz?

Orain ere betikoa gertatzen ari dela esango nuke: lehen sektorearen gaia, bai, oso garrantzitsua da, baina hauteskundeetan eztabaida politikoetatik, legebiltzarreko politika orokorretako osoko bilkuretatik… kanpo geratzen den gaia da. Zergatik ote? Eta esango nuke antzera gertatzen dela hauteskundeen jomuga Europa, EAE, Nafarroako Foru komunitatea, udalak eta foru aldundiak direnean ere. Eztabaida politikoetatik kanpo, nahiz eta hauteskunde-kanpainaro ikusten ditugun politikariak merkaturik merkatu eta azokarik azoka lehen sektoreari babesa adierazten.

Kuriosoa egiten zait herri honek eta politikak lehen sektorearekin duen hartu-eman berezia. Agian, kanpaina batzuetan argazkia aterako dute ukuiluren batean alderdi abertzaleetako kideek ere. Baina, oro har, argazkiaz haratago eta betiko pilulez (dirulaguntzak) haratago, badago ezer? Badago politikarik? Badago mezurik? Badago gogoetarik lehen sektoreaz, gizartearekin partekatzeko?

Estatuan ere, zer diferentzia egon da, adibidez, Luis Planas (PSOE) eta Arias Cañete (PP) bi "historiko" ministerioaren buru izan direnean? Bi ministro, bi alderdi politiko, eta desberdintasuna zein izan da? Eta, era berean, zein da desberdintasuna horien eta lehen sektoreaz arduratzen diren kontseilarien artean?

Desberdintasunik egon ez eta berdintsuak izatean datza arazoa; alegia, ministro horiek Madrilen Nekazaritza Politika Erkideak (PAC) sortzen dituen diruak kudeatzera soilik dedikatu ohi dira. Ekonomia, elikagai, lehen sektore eta kontsumitzaileentzat ez dute aurkezten, ezta "pentsatzen" ere, inongo proposamen berririk. Nire iritzian, Alberto Garzon Kontsumo ministro izan zenean, makroukuiluen aferan, momentu egokia izan zen lehen sektorean gogoeta eta koherentzia apur bat lantzeko; baina, orduan ere politika ofizialaren erantzuna betikoa izan zen, baserritarrari babesa eskaini eta behiekin argazkiak ateratzearena.

Desberdintasuna, egotekotan, Europan Nekazaritza Politika Erkidea (PAC) kudeatzeko orduan autonomia gehiago eskatzea da, soilik? Ez dago besterik? Nekazaritzan, abeltzaintzan 'euskal bidea' egitea, 'euskal eredua' martxan jartzea, hori da?

Estatuan elikagai-katearen legea ez da betearazten, belaunaldien arteko erreleboa ez da ziurtatzen familia-nekazaritzari eta arrantzaleei prezio duinak ordainduta… Egungo ekonomia eta lehen sektorea ezin dira erlazionatu, ezin dira aldaketak proposatu, eta, esango nuke, ezinezkoa dela aldaketan pentsatzea ere. Badirudi ezin dela elikagaien merkatua justuagoa egin baserritarrentzat eta kontsumitzaileentzat; hau da, ezin da berritzailea izan merkatuan aritzeko orduan eta gizarteari "merkatu" berriak eskaintzeko ereduetan.

Hitzik ere ez lehen sektoreak Garapen Jasangarrirako Helburuen (ODS) ildoan dituen aukerez, ezta Zohran Mamdani (New Yorkeko alkateak) elikagaien prezioak direla-eta supermerkatu publikoaz egin duen apustuaz ere (Podemos alderdi politikoa ari da horretaz mintzatzen). Inongo intentziorik ez produkzio lokala, hezkuntzara eta ospitale publikoetara iristarazteko; ezta interes kolektiboa lobbyen negozioen gainetik ipini eta legediarekin kudeatzeko intentziorik ere. Ikusten denez, Frantzisko Aita Santuak aldarrikatzen zuenari muzin eginez, elikagaiei aurpegia ipini gabe jarraitzen dugu. Alderdi abertzaleak hauteskunde garaian ez dira lehen sektoreaz apenas mintzatzen, eta hori, nire iritzian, akats larria da. Helburua, Euskal Herria



Lehen sektorea eta hauteskunde orokorrak ditu aztergai Eneko Egibarrek.

indartsu bat eraikitzea bada behintzat. Badago herri aurreraturik mundu globalean lehen sektorerik gabe? Badago etorkizunik Euskal Herriko lehen sektorearentzat betikoa egiten jarraitzen badugu? VOX eta PP alderdiak, aldiz, hauteskundeetan lehen sektoreaz mintzo dira; inongo aldaketarik proposatu gabe, beraien erara, baina, gutxienez, lehen sektorearen beharra aldarrikatzen dute. Eta, beraien kanpainan behiak eta lehen sektorea agertzen dira, oraingoan ere bai. Eta, egun, Vox alderdia –marketin asko eta oso azaleko mezuarekin bada ere– herritarren aurrean lehen sektorearen babesle moduan azaltzen dela esan daiteke.

Emilio Delgadok (Más Madrid) Gabriel Rufianekin orain hilabete batzuk ezkerra batzeko Madrilen egin zuten ekitaldian, onartu egin zuen alderdi ezkertiarren akatsa ere izan dela azken urte hauetan lehen sektoretik ideologikoki horrenbeste urruntzea. Eta onartu zuen lehen sektorean eta ezkerraren artean "gauzak" ez direla ondo landu. Nire iritzian ere, agerikoa da "gauza" horiek ez dutela gogoeta, sakontasun eta eztabaida seriorik eduki, nahiz "gauzek" dieta beganoa, otsoa, animalismo… deiturak eduki.

Agian, lehen sektorea ekonomiara beste modu batean lotzeko proposamenari, lehen sektorean –eta, oro har, gizarte osoan– premiazko gogoeta edota lanketa sakona gehitzea derrigorrezkoa dugu euskal herritarrok; lehen sektoreari buruz, elikagaiei buruz… Oraingoan, gure ideia eta bisioa Madrilen partekatzeko. Ba ote dago Euskal Herriko lehen sektorearentzat aseguru-poliza hoberik?

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri: Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOAINGO UDALA
Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

AZAROAK 29 | HAUTESKUNDEAK

JON ANDER UBEDA AIURRI

A-29: Gipuzkoako hautagaitza guztiak

Aurreko deialdiarekin alderatuta, Kongresurako eskaintza zertxobait murriztu da. Oraingoan ez baitira aurkeztuko Por Un Mundo Mas Justo (PUM+J) eta Recortes Cero alderdiak. 2026an, 11 hautagaitzatan, alderdi ezagunak eta boto gutxi jasotzen dituztenak topa genitzake. Honako hauek dira sei eserlekuen bila aurkezten diren alderdiak, alfabetikoki antolatuta:



Kongresuko sei ordezkari eta Senatuko lau aukeratzen dira Gipuzkoan, igande honetako hauteskundeetan. AIURRI

EAJ-PNV
Maribel Vaquero urnietarra egungo talde parlamentarioaren bozeramailea eta Gipuzkoako zerrendaburua da. Zerrendakide ditu Donostiako eta Tolosako alkate ohiak. Bi ordezkari lortu zituzten 2023an.

Hautagaiak:
1 Maribel Vaquero Montero.
2 Eneko Goia Laso.
3 Olatz Peon Ormazabal.

EH BILDU
Koalizio subiranista alderdi bozkatuena izan zen 2023an, botu guztien herena jasoz. Bi ordezkari lortu zituzten. Oihana Etxebarrieta hondarribiarra, egun, legebiltzarkidea da.

Hautagaiak:
1 Oihana Etxebarrieta Legrand.
2 Gorka Elejabarrieta Diaz.
3 Aizpea Otaegi Mitxelena.

ELAK/PCTE
Euskadiko Langileen Alderdi Komunista alderdi marxista-leninista da eta hautagaia tolosarra da. Hauteskundeetan parte hartu izan du, hala nola Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. 259 boto jaso zituen Gipuzkoan, 2023an.

Hautagaiak:
1 Eneko Lanz Llamas.
2 Maider Rodriguez Rodriguez.
3 Ioritz Barandiaran Urreta.

ESCAÑOS EN BLANCO
Daniel Lizarralde Aiurrin agertu da hainbat alditan. Izan ere, Urnietako Udal hauteskundeetan hautagai izan da eta, 2020ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan, Aulki Zuriak alderdiko Gipuzkoako zerrendaburu izan zen. Botoak jaso eta eserlekuak hutsik uztea defendatzen dute.

2023ko hauteskundeetan Gipuzkoan 933 boto jaso zituzten.

Hautagaiak:
1 Daniel Lizarralde Aguirre.
2 Amaya Larrea Lorna (Independientea).
3 Jairo del Olmo Jimenez (Independientea).

FRENTE OBRERO
Inmigrazioaren eta islamizazioaren aurkakoak. Espainia konplexurik gabe defendatu behar dela diote. 530 boto jaso zituzten Gipuzkoan, 2023an. Zerrendaburua Europako Parlamenturako hautagaia izan zen, bi urte atzera.

Hautagaiak:
1 Leire Orbañanos Martínez.
2 Marcos Antonio Fernández del Valle.
3 Anna del Carmen Migal Campa.

FRONTE ZABALA
40.000 boto lortu zituzten Podemosekin batera. Hautagaia Irungoa da eta hainbat eleberri idatzi ditu.

Hautagaiak:
1 Rosa Rubio Sanchez.
2 Ivens Perez Garcia.
3 Lidia Muñoz Ucher.

PACMA
Animalien aldeko alderdi ezaguna da. Alderdi txikien artean ibilbide luzea eta boto kopuru handixeagoa lortzen duena da. 1568 boto jaso zituzten Gipuzkoan, 2023an. Zerrendaburua aurreko udal hauteskundeetan hautagai izan zen Donostian.

Hautagaiak:
1 Maria Pilar Julia Otegui.
2 J.Antonio Arrieta Egurrola.
3 Nathalie Figueroa Savidán.

PODEMOS
Bakarrik aurkeztuko dira, aurrekoan Sumarrekin batera egin eta gero. 2027ko maiatzaren 23ko Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagai gisa ere ageri da Gartzia zerrendaburua.

Hautagaiak:
1 Maite Gartzia Ontiveros.
2 Alberto Villarreal Alonso.
3 Nagore Basurto Escamilla.

PP
32721 boto lortu zituzten, 2019an baino gehiago, baina ordezkaritzarik ez zuten lortu. Hautagai gaztea dute, mediatiko bilakatu dena.

Hautagaiak:
1 Jon Echeverria Franco.
2 Vanesa Velez de Pablos.
3 Adrian Ortuñez Zapardiez.

PSE-EE
Bigarren indarra eta bi ordezkari lortu zituzten 2023an. Zerrendaburu postuan errepikatzen du Romerok. Asensio, aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko lehen diputatu nagusi-ordea da.

Hautagaiak:
1 Rafaela Romero Pozo.
2 Jose Ignacio Asensio Bazterra.
3 Lore Suarez Linazasoro.

VOX
Alderdi ultraeskuindarrak, 2019an eta 2023an, 7.000 boto inguru lortu zituen. Zerrendaburua lehen postuetan aurkeztu da aurreko deialdietan.

Hautagaiak:
1 Juan Dios Davila Garijo.
2 María del Mar Martija Sanchez-Guardamino.
3 Pedro Ignacio Gandasegui Agorreta.

SENATUA
Zortzi hautagaitza daude, Kongresurako baina hiru gutxiago. Izan ere, PP ez da aurkeztuko VOXekin lotutako akordioari esker. Frente Obrero ere ez da aurkeztuko eta PSE-EEk eta Frente Ampliok zerrenda bateratua aurkeztuko dute Senatura.

www.aiurri.eus

AIURRI BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Espainiako Kongresurako emaitzak #A29

KOMUNITATEA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ EUSKAL HERRIA

Euskal Herrian Euskarazek manifestazioa deitu du abenduaren 5erako Durangon

Faxismoari eta eskuin muturrari euskaraz aurre egingo diogula aldarrikatuko dugu abenduaren 5ean Durangon.

Euskal Herriko 50 eragile baino gehiago atxikitu dira Euskal Herrian Euskarazek abenduaren 5erako deitu duen manifestazio nazionalera.

Euskalgintzako eragileez gain, deialdiarekin bat egin dute beste borroka esparru batzuetako herri mugimenduko eragileek nahiz sindikatuek. Azaroaren 17an, eragile horietako hainbat ordezkari bildu ginen Durangon, abenduaren 5eko hitzorduaren garrantzia azpimarratzeko eta euskaltzaleei bertaratzeko deia egiteko.

Manifestazioaren aurkezpen agerraldian azaldu genuen moduan, euskararen egoera larriak euskararen aldeko borroka bizkortzea eta indartzea eskatzen du, berehalakoan eta nahitaezean -are gehiago, kontrako haizea hain harro dabilen garaian-; baina, horretarako, euskara lehentasun politiko eta sozial bilakatu behar dugu Euskal Herri osoan eta hori, han eta hemen gauden euskaltzaleon aktibazioari eta antolakuntzari esker lortuko dugu. Horretan, gaur hemen bildu garen eragileok egiten dugun ekarpena ezinbestekoa da, eta badakigu horretan sakontzen jarraitu behar dugula euskara minorizazio egoeratik aterako badugu.

Krisi anizkoitzen garaia bizi dugu eta, testuinguru horretan, argiki ikusten ari gara eskuin muturra eta faxismoa indartzen ari direla eta gainditutzat genituen diskurtso erreakzionario eta atzerakoiek lekua irabazi dutela. Faximoak ere jakin izan du garai berrietara egokitzen eta, unean une, euskaldunen eta beste hainbat eta hainbat disidentzien zapalkuntzaren asimilazioa bermatzen.

Euskal Herrian, gainera, badakigu, ez dugulako ahaztu, gure historia garaikidean faxismoak edota frankismoak euskararen eta euskaldunon galeran jokatutako funtsezko paper aktiboa. Faxismoak gure herriaren, hizkuntzaren nahiz bestelako eskubide sozialen aurka egin du eta, egun, garai haiek gorazartzen eta nostalgiaz oroitzen dituztenen ahotsak gero eta ozenago eta gertuago sumatzen ditugu. 60ko hamarkada amaieran izandako euskaldunon "pizkundea" argiki lerrokatu zen Euskal Herri aske eta antifrankistaren edota antifaxistaren aldeko borrokarekin eta, orain ere, Euskal Herrian Euskarazetik horretarako deia egiten dugu.

Horregatik, antifaxismoan oinarritutako euskararen aldeko borroka aldarrikatzen dugu; azken buruan, zapalkuntza guztiak gaindituko dituen Euskal Herri euskalduna eraiki nahi dugulako eta hori ezin delako beste modu batera egin. Faxismoari aurre egingo diogu, bai, baina Euskararen Errepublika ipar hartuta; alegia, balio antifaxistatan oinarrituko den eta frantziar nahiz espainiar estatuetatik aske izango den Euskal Herri euskaldunaren eta independientearen eraikuntza da faxismoari aurre egiteko Euskal Herrian Euskarazetik aldarrikatzen dugun bidea. Abenduaren 5ean, beraz, eguerdiko 13:30ean Landako Gunetik hasita, euskaltzale oro Durangoko kaleak betetzera dei egiten dugu, faxismoaren aurka eta Euskararen Errepublikaren alde!



Aurkezpen-ekitaldia. EHE

Osasun publikoaren aldeko aldarria, kalera

Tolosaldeko osasun publikoaren etorkizunak kezka sortzen jarraitzen du eskualdean

Erredakzioa ANDOAIN

Asuntzion klinikako langileek mobilizazioa egin zuten aurreko larunbatean. Bereziki, ospitalearen etorkizunaren inguruko ziurgabetasuna salatzeko eta eskualdeko herritarrek behar duten osasun arreta publiko eta kalitatezkoa aldarrikatzeko. Langileen enpresa batzordearen arabera, hiru dira ezinbestekoak: Asuntzion klinikaren publifikazioa, bertako 380 langileen subrogazioa eta zerbitzu guztiak izango dituen ospitale publiko baten bermea. Gogoan izan behar da Andoainentzat erreferentziazko osasun gunea dela Tolosakoa. Mobilizazioaren amaieran egindako agerraldian, langileen ordezkariek argi utzi dute ez dutela egungo egoera luzatzen jarraitzerik nahi. Izan ere, duela urte asko erabaki zen Tolosaldeak ospitale publiko bat izango zuela, baina Osasun Sailak aurkeztutako plan funtzionalak ez ditu, haien ustez, ez langileen ez herritarren eskaerak asetzen.



Manifestazioa egin zuten aurreko larunbatean. AIURRI





AIURRI

Azaroak 25 Urnietan

Azaroaren 25a Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna da eta Urnietako Udalak elkarretaratzea deitu zuen. Herritarrak deitu zituen San Juan plazara, eguerdiko 12:00etan hasi zen hitzorduan. Egun seinalatuari lotuta, igande honetarako "Me too" izeneko antzezlana antolatu dute. Sarobe antzokian izango da iluntzeko 19:00tan hasita.

Kafe Zaintzaileak

Harrera oso ona izan du Urnietan Kafe Zaintzaileak ekimenak. Aurreko asteburuan egin zuten lehen saioa eta deialdiari 30 bat lagunek erantzun zioten. Hitz egiteko, entzuteko eta esperientziak partekatzeko gune hurbil eta atsegina izan zen. Antolatzaileek datozen hilabeteetan egingo diren saioetan parte hartzera animatu dituzte urnietarrak.



AIURRI



Gune berria. AIURRI

Bilketa selektiboa egiteko gunea, Urnietan

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Kiroldegiaren ondoan MiniGARBIGUNEA izeneko edukiontzia jarri dute. Bertan pintura-poteak, lapikoak, zartaginak, irabiagailuak, plantxak, gailu informatikoak –monitoreak, teklatuak–, bonbila halogenoak eta kontsumo baxukoak, fluoreszenteak, inprimagailuen kartutxoak eta tonerrak edota kafe-kapsulak utz daitezke.

2027ko martxora arte, gune berria eta furgoneta ibiltaria aldi berean martxan izango direla adierazi du Udalak.



Grabazioa Leitzaran bailaran egiten ari dira. AIURRI

Nazioarteko filmaren grabaketa Leitzaran bailaran

Akzioa, abentura eta arte martzialak ditu oinarri pelikulak

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko egunetan ez ohiko mugimendua izan da Inturiaga ("Inttui") baserrian eta inguruetan. Hara hurbildu eta filmaren grabaketan lantalde profesionala lanean topatu du Aiurri astekariak. Nazioarteko filma da eta hainbat eszena Euskal Herrian grabatzen ari dira. Akzioa, abentura eta arte martzialak ditu oinarri pelikulak eta zinema estilo horretan aski ezaguna den aktorea da protagonista: Scott Adkins. Zuzendaria, berriz, Jesse V. Johnson. Eskarmentu handikoak dira biak ala biak: 20 filmen zuzendaria da Johnson, eta 31 filmetan izan da protagonista Adkins. Filmari buruz zabaldu duten sinopsiaren arabera, Londreseko gau-klub bateko atezaina da filmeko protagonista nagusia, eta gogoz kontra onartzen du aspaldiko lagun batekin atzerrrira bidaiatzea. Kriminal ahaltsuen bilera arriskutsu batean parte hartzera doaz Espainiara, eta bertan, jokoan jarriko da bere iragan bortitza atzean uzteko erabakia.

Tolosan eta Nafarroako hainbat tokietan jarraitu dute filmaketarekin, hurrengo egunetan.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2026 ANDOAINEN

Guri toki guztietan egitea gustatzen zaigu

ABENDUAK 1

Martxelo Otamendirekin solasaldia

Dinamizatzailea: Ainara Arratibel

18:00 -19:00 Bastero Kulturgunea

Ikusberarekin jolasean eta meriendatxoa

Aiurrirekin eta Andoaingo Ludotekaren laguntzaz antolatuta

17:30 – 18:30 Goikoplaza

Kartel pegada eta Kanta-Dantza kalejira

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren eta PlazaDantza taldearen laguntzaz antolatuta

18:30 – 20:00 Goikoplazan hasi eta Zumea plazan bukatu

Tartean bi geldiune egingo dira Plaza Morea-Andreurdinarenan eta Zehar kai-muturrean

ABENDUAK 3

Ekitaldi instituzionala

Andoaingo euskaltegian euskara ikasten ari direnei aitortza

11:00 Goikoplaza, Larramendi eskulturaren bueltan

ANDOAINGO UDALA

AIURRI



Mukizuak taldeko partaideak, desafioari ekin aurretik. AIURRI

Gazteen Urnieta

Badira udalerrian bizitzeko moduak eta Poxta Zahar Gazte Kuadrillen elkartekoek Urnietan hazi, hezi, gozatu eta bizi nahi dute. Sanmielak amaituta, burubelarri murgildu ziren Kuadrillen Egunaren antolakuntzan: gazteen erantzuna bikaina izan zen



Matxinsaltoak, desafioari hasiera emateko prest. AIURRI

Jon Ander Ubeda URNIETA


Goizean hasita, gozatu ederra hartu zuten Kuadrillen Egunera hurbildutako gazteek. San Juan plazan hasita, desafioak dozena erdi proba bildu zituen. Giro ederrean eta lehia sanoan jardun zuten denek ere. Diotenez, tarte txikiagatik bada ere, Mukizuak izeneko taldea gailendu zen. Egun eder baten hasiera izan zen. Segidan, festak hartu baitzuen lekukoa: Egapen, bazkarian, ehundik gora lagun elkartu zen.



Emozio biziko probak proposatu zituzten antolatzaileek. AIURRI



Zaku-lasterketarekin abiatu zen dema.



Trebezia handia behar zen, tarteka. AIURRI

"Kuadrillen egunari begira, txilabak egitea erabaki dugu"

EBA TARACENA ETA OIHANE NAZABAL POXTA ZAHAR



AIURRI

Dozenaka lagun elkartu zarete, ehundik gora erraz, Egape ikastolako jolastoki estalian antolatu duzuen bazkarian. Zer moduz doa eguna?

Oihane: Ondo hasi dugu eguna. Lehenik, desafioan, eta, orain, bazkarian.

Eba: Arratsaldean elektrotxaranga eta kontzertuak ditugu, eta, beraz, luzatuko da gaua.

Nolakoa izan da jaiaren antolakuntza?

Oihane: Sanmielak amaitu eta berehala ekin genion jaiak antolatzeari. Denen artean orain arte egin ez diren berrikuntzak txertatu nahi genituen.

Eba: Adibidez, Kuadrillen egunari begira, txilabak egitea erabaki dugu. Ideia polita iruditu zaigu eta kuadrilla ugarik bat egin du proposamenarekin.

Jaien antolakuntzaren atzean lan handia al dago?

Oihane: Bai. Denbora gutxi daramagu antolaketa lanetan eta gaurko eguna aurrera ateratzeko gauza asko lotu behar dira.

Eba: Erantzuna, gainera, ona da. Gaur jende asko elkartu da eta gure artean oso giro ona dago.

Eta gero esango dute Urnietan ez dagoela ezer. Urnietan bizi eta herrian bertan gozatu nahi duzue zuek.

Oihane: Halaxe da. Ez dugu festa egitera jendea beste herrietara joan nahi, eta geuk ere ez.

Laster, Gabonetan, ekitaldi gehiago.

Oihane: Festa gehiago egiteko aukera izango da.

Eba: Eta urte zaharreko San Silbestre lasterketa. Partaideei, gainera, mozorrotuta agertzeko deia luzatuko diegu. Hiztordu horietan ere ondo pasako dugu.

Txilaba-festa, Egape ikastolako bazkaritik hasita















Bazkariko eta desafioko argazki-sorta ikusgai dago Aiurri.eus webgunean, argazki-bildumen atalean. AIURRI



Bastero Kulturgunean jardunaldia egin ostean adierazpena irakurri zuten Plaza Morean. Bideoz ikusgai Aiurri.eus-en. AIURRI

Eskola Publikoaren aldeko Topaketa

Andoain "eskola-segregazio nabarmenaren adibide argia" dela adierazi zuten Bastero Kulturgunean, hiru aste atzera, egin zuten Eskola Publikoaren aldeko Topaketan. Ondarretako eta Leizaran eskolen errealitatea gordin azaldu zuten bertan

Xabier Lasa ANDOAIN

Ondarreta Herri Eskolak, Leizaran Institutuak eta Eskola Publikoaren aldeko Harro plataformak antolatuta, euskal eskola publikoaren aldeko topaketa egin zuten Basteron, azaroaren 7an.

Harro plataformako Maribel Lopez de Luzuriagak aurkeztu zuen Topaketaren lehen zatian, Maite Petrikorena Ondarretako zuzendariak, Aitor Ormazabal Leizarango zuzendariak, eta bi eskoletan guraso den Henar Arranzek eta bietan ikasle izatea zer den badakien Irati Castañok hartu zuten hitza.

Bigarrengoan, berriz, Amaia Arenal Bilboko Eskurtze institutu publikoko irakasle eta gurasoak Deusto auzoan azken ikasturtean bi ikastetxe publikoen (Deustuko Ikastola eta CEIP Deusto) artean gertatu den batzearen esperientziaz jardun zuen. Bere ikuspuntutik, prozesua fusioa baino gehiago integrazioa edo absortzioa izan zela esan zuen.

Azkenik, Arantza Fernandez de Garaialdek XXI. mendean eskola publiko eta pribatuetan matrikulazio kopuruen bilakaera hartu zuen hizpide. 2003tik 2026 jaisten ari dela matrikulazioa, publikoan eta pribatuan, adierazi zuen besteak beste.

Ondarreta eskolaren datu gordinak

Irati Castaño Cabezas ikasleak hartu zuen hitza lehenbizikoz, Topaketan. "Eskola publikoan egin dut hezkuntza ibilbide guztia. Niretzat eskola publikoa ez da ikasteko lekua bakarrik; bada, baita ere, lagunak egiteko, esperientziak partekatzeko, kultura desberdinak ezagutzeko eta elkarrekin hazteko lekua. Denok aukera berdinak izango dituen eskola, inor kanpoan utziko ez duena. Horregatik gaude hemen gaur, Euskal Eskola Publikoa elkarrekin babesteko eta indartzeko".

Maite Petrikorenak Ondarreta Herri Eskolaren egungo egoera zein den azaldu zuen. Horretarako, eskolaren printzipio nagusia gogorarazi zuen, bere hitzartzearen hasieran: "Ikasle guztien beharretara iristea da gure helburu nagusia, eta kalitateko hezkuntza eskaini eta haien ongizatea zaintzea". Azken urteetan, ordea, gero eta zailagoa egiten ari zaiela printzipio horri eustea, aitortu zuen. Bestetik, gogorarazi zuenez "aniztasuna guretzat beti izan da aberatsa oso. Aukera ematen jende, kultura... desberdinak ezagutzeko".

"ESKATZEN DIOGU HEZKUNTZA SAILARI IRTENBIDEA TOPATZEA, 2028TIK AURRERA BEGIRA"

Datu zehatz batzuk zabaldu zituen, eskolaren erradiografia egin nahian: "151 ikasle ditu eskolak; horietatik, 38 Hezkuntza sailak hezkuntza-laguntza premia daukatenen A zerrenda ofizialean daude eta sei, 6 B zerrendan; 44 dira guztira. Horrek esan nahi du ia %30ak behar bereziak dituela. Gainera, horietaz gain, badira ikasle gehiago ere artatzen ditugunak, nahiz eta ez eduki diagnostiko zehatzik. Bestalde, bekadun kopuruari dagokionez, 2025-2026ko ikasturteko datuen arabera, iazko 166 ikasleetatik, 144 bekadunak izan ziren; alegia, %87a".

Xehetasun horiekin batera, 2025-2026 ikasturtean Ongi Etorri ekimenak herriko hiru eskolen gainean egin zuen txosteneko zenbait datu ere izan zituen aipagai Petrikorenak. "Etorkin jatorria duten ikasleen kopurua, batez bestekoa, %67a da, eta ikasle-talde batzuetan %80etik gorakoa. Aldi berean, gure eskolak euskara eta gaztelaniaz gain, beste munduko 33 herrialdeetako 13 hizkuntza duten ikasleak ditu".

Errealitate hori kontuan hartuta, adierazi zuen eskola publikoa herriaren isla izan behar lukeen arren, ez dela hala gertatzen egun, "batik bat hartzen badugu kontuan Andoaingo biztanleriaren %12a dela etorkin jatorrikoa".

Hezkuntzari, eskakizun zehatzak

Datu horiek islatzen duten errealitatea gero eta zailagoa egiten zaiela kudeatzea aitortu zuen Patrikorenak, eta gehitu zuen, irtenbidea bilatzeko asmotan, maiz elkartu izan direla Hezkuntza Saileko ordezkariekin.

"Ederki asko ezagutzen dute Ondarretaren errealitatea, eta itunpeko ikastetxeekin 2022-2028 eperako sinatutako itunean babesten dira, erabakirik ez hartzeko. Horrenbestez, eskatzen diegu irtenbideak topa ditzatela 2028tik aurrera begira".

Iazko matrikulazioa aipatu zuen, bere ustez bidegabekeria gertatzen ari denaren adierazle gisa. "Azkeneko bilerara aurreko matrikula garaiko datuekin joan ginen: 64 haur jaio zirela kontuan izanda, honako ondorioa ateratzen zen, ikasleen banaketari dagokionez: bi lerro ikastolak, lerro bat La Salle Berrozpek, eta zenbakiak ondo eginez gero, Ondarretak 14 ikasle. Hara non ezustekoa, gurean lau baino ez ziren matrikulatu. "Non dira besteak?" egin genuen galdera logikoa. Nonbait, itunean, bi urtekoen ratioa 18koa dela jartzen badu ere, letra txikian esaten da hiru urtekoak hartzen direla kontuan. Beraz, 25 ikasle arte hartzeko aukera daukate itunpeko eskolek; eta ez hori bakarrik, gainera, irakasle estra bat jartzen zaie".

Gauzak horrela, galdera zorrotza galdetu zien Basteron bildu ziren entzuleei, Petrikorenak: "64 haur jaio badira Andoainen, eta itunekoek bakarrik 75 hartzeko eskumena badaukate, zer etorkizun dauka Ondarretak Andoainen? Ea itxi egin nahi ote zuten Ondarreta galdetu genien hezkuntzako ordezkariei zuzen-zuzenean, eta hori ez dela inondik ere horrela erantzun ziguten".

Oraindik orain, zenbait eskakizunez osatutako idatzia igorri diote Hezkuntzari Ondarretako Herri Eskolako ordezkariek, 2028tik aurrera aplikatuko diren hezkuntza itunen plangintza zehazteko orduan kontuan har ditzaten. Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako bi urteko gelei buruzko zenbait proposamenak luzatu ditu eskolak. Besteak beste: 2028tik aurrera Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailan gehienezko ratioa 18 ikasletan ezartzea, eta muga hori ez gainditzea; ituntze irizpide berrietan, udalerriko sare publikoaren eta itunpekoaren arteko oreka berariaz kontuan hartzea; eta, hezkuntza publikoaren jasangarritasuna eta egonkortasuna plangintza irizpide estrategikotzat hartzea; edota, matrikulazioaren banaketa orekatuari eta segregazioaren prebentzioari lotutako adierazleak txertatzea unitateak planifikatzeko orduan.

Neurri horien aplikazioak ondorio onuragarriak eragingo

lituzkeela adierazi zuen Petrikorenak, “bi urteko haurrei arreta egokiagoa eskaintzeko, Andoaingo hezkuntza eskaintzaren antolaketa orekatuagoa sustatzeko, eta azkenik, hezkuntza publikoaren egonkortasuna eta garapena bermatzeko herritar guztientzat zerbitzura dagoen sare estrategiko gisa".

Leizaran Institutua

300 ikasle ditu Leizaran Institutuak, eta DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketako erdi mailako ziklo bat eta goi mailako beste bat, eta aparte, ZIGa (Zeregin Ikaskuntza Gela) eskaintzen ditu.

Aitor Ormazabal zuzendariak Petrikorenaren adierazpenak berretsi zituen, “agerian dago Andoaingo derrigorrezko hezkuntzan marjinazio eta segregazio egoera dagoela, eta horrek eragiten dio sare publikoari. Izan ere bertako familia gehienek itunpeko sareko ikastetxeetan eskolaratzen dituzten bitartean, atzerritar jatorriko zein egoera zaurgarrian dauden familien presentzia dezente nabariagoa da sare publikoko bi ikastetxeetan”.

Ikasle profilari dagokionez, “askotarikoa eta konplexua” dela, eta HKI indizea (zailtasun handieneko baldintzetan lan egiten duten ikastetxeak zeintzuk diren jakiteko eratutakoa) oso altua dela institutuan, aitortu zuen. Gehitu zuenez, DBHn bekadunen ikasle kopurua oso altua da, %71tik gora, eta hezkuntza laguntza premia bereziak dituztenak, berriz, %23,4koa da. Azkenik, gehitu zuen BDHn %34ak etorkin jatorria duela, eta Batxilergoan %40ak.

Aurreiritziak eta estereotipoak

Ormazabalek adierazi zuenez, aniztasuna berez ez da arazoa, “aitzitik, hezkuntza komunitatea aberasten du. Baina ikastetxeen artean modu desorekatuan banatzen denean, ondorio ezkorrak lortu daitezke, besteak beste, herriaren kohesio sozialean eta ikasle-hezkuntza aukeraketetan”.

Ondorio ezkorren atalean sakondu zuen Ormazabalek. “ikastetxe bakoitza profil sozial jakin batekin lotzen denean, eta segregazio egoera dagoenean hori gertatzen da maiz, alegia, indartu egiten direla ikastetxe horrekiko aurreiritzi eta estereotipoak. Andoainen dagoen segregazio egoerak eskola publikoaren erakargarritasuna kaltetzen du”.

Zaurgarritasun egoeran dauden edo hezkuntza laguntza premiak dituzten ikasleak ikastetxe berean biltzen direnean “ikastetxeak gehiago ahalegindu behar” duela, eta horrexegatik, baliabide gehiago behar dituela adierazi zuen. Logika hori Hezkuntza sailak ez duela kontuan hartzen gehitu zuen. “Egia da batzuetan programa batzuk jartzen dituela martxan, baina ez dira nahikoak”.Hezkuntza sailari ez ezik, Udalari ere eskakizunak luzatu zizkion Ormazabalek. Batik bat, “eskola publikoaren aldeko esku-hartze eta inplikazio aktiboa eskatzen diogu, zenbaitetan hori faltan bota baitugu”. “Izan ere, segregazioaren ondorioa ez da soilik ikastetxearen arazoa; herri osoari eragiten dion arazo soziala da”. Gabeziak gabezi, Ormazabalek ziurtatu zuenez eskola publikoek konpromiso handiko profesionalak dituzte, eta “proiektu berritzaileak garatzeko eta aniztasuna kudeatzeko esperientzia zabala daukate”.

"SEGREGAZIOA EZ DA SOILIK IKASTETXEEN ARAZOA, HERRI OSOARI ERAGITEN DIONA BAIZIK"

Segregazioaren aurkako guraso baten mezua

Ondarretako eta Leizarango zuzendarien ostean, Henar Arranzek hartu zuen hitza. Honela aurkeztu zuen bere burua: “Gaur egun Ondarretan eta Leizaranen ikasten duten bi seme-alaben ama naiz. Nik neuk Andoaingo ikastolan ikasi nuen. Horregatik badakit herriko beste ikastetxeek zer eskeintzen duten”.

Bere seme-alaben hezkuntza erabaki zueneko uneaz mintzatu zen. ”Ondarreta aukeratu nuen, Andoaingo eskola publikoa, ez besterik ez nuelako, hura nahi nuelako baizik. Eta urte guzti hauen ondoren, berriro aukeratu beharko banu, berriro aukeratuko nuke. Ondarretan eta Leizaranen hezkuntza-proiektu sendoak aurkitu ditudalako. Irakasle konprometituak. Haurrak erdigunean jartzen dituzten eskolak. Ongizatea benetan zaintzen duten komunitateak”.

Bereziki aniztasunaren balioa goretsu zuen, ”gure seme-alabak jatorri, hizkuntza eta errealitate desberdinetako haurrekin batera hazten eta elkarbizitzen ari dira. Aberasgarria ikusten da besteen kultura ezagutzea, zerbait positiboa bezela. Gure seme-alabek egunero ikasten dute errespetua zer den. Enpatia zer den. Elkarrekin bizitzea zer den“.

“Zer gertatzen ari da Andoaingo eskola publikoarekin?” galderari erantzun nahi izan zion, segidan. “Andoaingo eskola publikoak egoera zailean daude, egun. Eta hori ez da kasualitatea. Ez da jaiotza-tasa jaitsi delako bakarrik. Urteetako plangintza baten ondorioa da. Andoainek gaur egun nahikoa plaza publiko ditu bere haurrak eskolaratzeko. Eta hala ere, plaza publikoak hutsik dauden bitartean, sare itunduko plaza gehiago finantzatzen jarraitzen da”.



Ormazabal, Petrikorena, Castaño, Arranz eta Lopez de Luzuriaga, Basteron, azaroaren 7an egindako Topaketan. AIURRI

Segregazioa izan zuen aipagai. “Nire seme-alaben egunerokoan ikusten dut. Eta hori da benetan kezkatzen nauena. Gure haur batzuek irain arrazistak jasan dituzte. Beste batzuek bazterketa bizi izan dute eskolaz kanpoko jardueretan. Batzuek entzun behar izan dute "pobreen eskolara" doazela. Pentsatu une batez zer sentitzen duen haur batek hori entzuten duenean. Are mingarriagoa da ikustea, batzuetan, mezu horiek ez datozela haurrengandik bakarrik. Helduengandik ere bai“.

Euskararen gainean hausnartzea eskatu zuen Arranzek. ”Andoaingo euskaldunei ere hitz egin nahi diet. Nik uste dut gaur egun euskararekiko militantziarik zintzoena ez dela beti erosoena. Euskara ez da soilik euskaraz dakitenen artean mantenduko. Euskara haziko bada, euskarara hurbiltzen ari diren haurrengana ere iritsi behar du“.

Bere historia pertsonala ekarri zuen gogora, Basteron. “Gaztela eta Leongoak dira nire gurasoak. Ez dakite euskaraz. Baina Andoainen bizitzea erabaki zutenean, argi zuten seme-alabek herri honetako hizkuntza eta kultura ezagutzea nahi zutela. Horregatik matrikulatu ninduten ikastolan. Nire gurasoen erabakiari esker sentitzen dut euskal kultura ere nire kultura dela. Horregatik sinesten dut hainbeste eskolak egin dezakeen lanean. Euskara ez baita jaiotzez jasotzen den zerbait bakarrik. Aukera ematen zaionean, ikasi, maitatu eta norberarena egin daitekeen zerbait ere bada. Eta hori egunero gertatzen da Ondarretan eta Leizaranen“.

Harrotasuna eta eskakizuna, bi mezu uztartu zituen hitzartzearen azken zatian Arranzek. “Harro nago nire seme-alabak jasotzen ari diren hezkuntzaz. Harro nago haien irakasleez. Harro nago haien ikaskideez, eraikitzen ari diren komunitateaz. Baina kezkatuta ere banago. Ez dudalako nahi nire seme-alabek maite duten eskola etengabe defendatu behar izatea. Ez dudalako nahi inork sentiaraztea haien eskola gutxiago dela. Eta ez dudalako nahi Andoaingo haurrek elkarrengandik bananduta haztea. Guk ez dugu inoren kontra egin nahi. Ez gara errukia eskatzera etorri. Ez gara pribilegioak eskatzera etorri. Gu haur guztiak elkarrekin hazteko aukera defendatzera etorri gara. Eskola publikoa ez da pobreen eskola. Ez da migranteen eskola. Ez da baztertuena izan behar duen eskola. Guztion eskola da”.



Joxe Ramon Berrondo Eizagirre, fliskorno eta tronpeta eskuetan. Larunbatean, 19:00etatik aurrera izango daa kontzertua. AIURRI

“Kontzertura ez nituzke soilik musikazaleak gonbidatuko”

JOXE RAMON BERRONDO EIZAGIRRE MUSIKARIA

Gora Kaletxiki Bandak Santa Krutz elizan larunbat arratsalderako (19:00) prestatu duen kontzertuko protagonista nagusienetako bat izango da musikari gaztea

Xabier Lasa ANDOAIN

Hain zuzen, Concierto de Aranjuez, Habanera, El oboe de Gabriel, Rock around the cloc, Louis Armastrong-Revival selection, eta, Santa Zezilia abestietan tronpeta edota fliskornoa joko ditu Berrondok. Protagonismoa Janitz Nazabal, Xabier Otamendi, Mikel Arredondo eta Julen Barriorekin partekatuko du beste hainbat piezetan.

Musika banda batean bakarlari gisa nabarmendu behar denean, ardura eta presioa handitu egiten dira, Joxe Ramon?

Jakina hala dela, baina aspalditik hartutako ohitura da niretzat. Orain hamar urte, 16 urte nituela hasi nintzen Gora Kaletxikiren kontzertuetan halaxe, eta ez zait kostatzen batere. Eroso sentitu izan naiz beti Gora Kaletxikirekin, izugarri laguntzen du didalako musikari gisa hazten. Bestalde, herrian jotzeak ere gertutasun eta lasaitasun puntu bat ematen dit.

Musika Bandatan-eta, maiz hartzen dute protagonismoa tronpeta-jotzaileek. Zergatik da hori?

Banda batean diren makina bat instrumentuetatik, distiratsuenetakoa delako.

Tronpeta ez ezik, fliskornoa ere jo behar duzu larunbatean. Ez da oso ezaguna bigarrena.

Tronpetaren antzekoa da, baina pittin handixeagoa. Ni normalki tronpeta-jotzaile bezala aritzen naiz talde desberdinetan, eta ahalegin berezia egin behar izaten dut fliskornora moldatzeko. Izan ere, oso desberdinak baitira jotzeko orduan, erregistroetan, haizea botatzeko moduan... Entzumenaren aldetik ere, *solo* notak goxoagoak dira fliskornoarenak.

Musikaleentzat gogokoa izango den kontzertua prestatu duzuela esango al zenuke?

Egia esanda, konplikazio askorik gabeko kontzertua programatu da, Gora Kaletxikik eman dezakeenaren neurrikoa eta musikazaleek gozatzeko modukoa. Gora Kaletxiki ez da goi mailako txaranga bat, eta horretaz kontziente izanik, ahalik eta kontzerturik duinena eta erakargarriena eskaintzeko prestatu da, gogotik prestatu ere, azken asteetan, Joxe Mari Oiartzabalen zuzendaritzapean. Denetik topatuko dute entzuleek: doinu klasikoak, rock erritmoak, Xabier Leteren Habanera, The Mission filmeko Enrio Morriconeren doinu ospetsua, Louis Armastrongen abesti ezagunenak...

Gora Kaletxiki txarangak hamar urte daramatza banda formatuan kontzertuak eskaintzen. Ez da batere ohikoa hori, txarangen munduan.

Ez horixe! Jaio zenetik, bere filosofia beste txaranga askorengandik bereiztu baita. Herriko musikari gazteen harrobi izateko eta herriko kultur dinamikan ekarpena egiteko sortu zen, eta 25 urte betetzeko bidean da horri eutsita. Herriz herri ibili ohi den Oria txarangako kidea ere banaiz, eta argi daukat zertan den bereizketa hori.

Gazteei bultzada emateko harrobia dela Gora Kaletxiki aipatu dut, eta horixe azpimarratu nahiko nuke. Ohikoa izan daiteke nire kasua: 20-25 ikasle hasi ginen musika eskolan, eta egun, bizpahiruk jarraitzen dugu formatu desberdinetako musika taldeekin jotzen. Futbolean bezalatsu gertatzen dela musikagintzan ere, alegia. Txikitatik hasita orduak eta orduak eskaini instrumentu bati, baina urtetan aurrera, grina horri jarraipena emango dion aukerarik eduki ez, eta utzi azkenean!

Larunbatean, musika eskoletan partiturekin teorian ikasitako hori gero Gora Kaletxiki txarangak praktikara eramateko aukera eman digun musikari batzuk bilduko gara. Konpromiso ugari izaten ditugu nork bere musika taldeekin urtean zehar, eta ezin izaten dugu parte hartu Gora Kaletxikiren emanaldi guztietan. Nolanahi ere, sakratua da Santa Zeziliako kontzertu berezi hori, eta hor bai ezin dugula huts egin. Esker oneko sentitzen gara Gora Kaletxikirekin, ezinbesteko bultzada eman baitigu musikari gisa.

Alde horretatik, larunbatari begira, ez nituzke soilik gonbidatuko musikazaleak; instrumenturen bat ikasten ari diren gazteei eta beren gurasoei ere esango nieke merezi duela kontzertuak. Gazte gogotsuentzat ateak irekita dauzkan musika talde bat topatuko du.

Gora Kaletxikitik aparte, zein taldetan hartzen duzu parte, gaur egun?

Hernaniko Udal Musika Bandan, Oria txarangan, eta, Olgetan erromeria taldean.

Eramangarria egiten al zaizu hain formatu desberdinetako taldeekin jotzea?

Gaztea naiz, musika dut gogoko biziki, festa giroan parrandan ibili baino nahiago dut musika jo, eta oraingoz behintzat, ondo daramat urtean makina bat emanaldi eman beharreko bizi-erritmoa. Batzuekin eta besteekin, urtean 80 bat emanaldietan parte hartzen dudala esango nuke.

Andoain eta Tolosaldeko musikarik osatu zenuten Olgetan, asko ez dela. Zer moduz esperientzia?

Ederra, gozagarria izan da denbora laburrean egin dugun ibilbidea. Guk gozatu egiten dugu, eta gainera, lortzen dugu ikusleek gozatu ez ezik dantzan ere egin dezaten,. Gehiago ezin eskatu! Gero eta ezagunagoak gara euskal erromerien eta jai herrikoien munduan. Maiatzetik irailera bitarte jotzen ari gara gutxi gora behera; 30 bat emanaldi egin genituen iaz, 40 aurten.



Plaza Morean, Kale Nagusian eta Juanita Alkain plazatxoan emanaldi bana egin zuten Andoaingo Udal Musika Eskolako ikasleek. Argazki-bilduma eta hiru bideo Aiurri.eus gunean ikusgai daude. AIURRI

Musikalean, Xixili egunean

Musikarien zaindariaren aurreko egunetan, kalajira bana antolatu zen Andoainen eta Urnietan. Hitzordu horietan Udal musika eskoletako ikasleak "Musikalean" hitza zeraman kamisetak jantzita irten ziren kalera



San Juan plazan elkartu ziren protagonista guztiak. AIURRI



Klarinete ikasle gazteak, Juanita Alkain plazatxoan. AIURRI



Trikitilari ikasleak, Urnietako kalejiran. AIURRI



Urnietako argazki-bilduma eta bi bideo Aiurri.eus webgunean aurki daitezke. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Aurreko asteazkenean musika instrumentuak kalera atera eta erakustaldia eman zuten Urnietan. Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleak, Txanbolin Txistularien Elkartea, Adarra Jo Txaranga, Kantazaun kantu taldea eta Adarramendi abesbatzako kideak elkartu ziren Urnietan, Xixili eguneko ospakizunean parte hartuz. Lehen aldia da eragile horiek guztiek elkar hartuta ospatzen dutela musikarien eguna. Aurtengo berrikuntza ohitura bihurtzeko asmoa dutela adierazi zion Antton Jauregik Aiurri astekariari.

Andoainen, biharamunean

Ostegunean, Andoaingo Udal Musika Eskolako musikarien txanda iritsi zen. Haizezkoen taldea eta perkusioarekin abiatu zen arratsaldea, akordeoiak eta txistuak eman zien segida, eta, bukatzeko, biolina, flauta, gitarra eta perkusioa uztartu zituzten. Ekitaldiari amaiera emateko, txokolate-beroa hartu zuten parte-hartzaileek. Plaza Morean, Bastero Kulturguneko erakusketa-aretoaren atarian eta Juanita Alkain plazatxoan saio bana egin zuten haur eta gazteek, ikusleen gozamenerako.

Arrate Jai Alai

Zesta-punta jaialdi bikaina iragarrita zegoen eta ikusleek ez zuten hutsik egin. Winter Series txapelketako onenak bertaratu ziren Andoainera, erakustaldi aparta emanez. Pozarren egon daitezke antolatzaileak eta pilotazaleak

Xabier Lasa ANDOAIN

Zesta punta bertatik bertara ikusteko gogoa zegoen Andoainen. Eta nolakoa, gainera: aurreko igande arratsaldean harmailak bete egin ziren Winter Series jaialdiaz gozatzeko. Gaztelekuko antolatzaileentzat eta zaletuentzat, beraz, arratsalde gogoangarria.

Iñaki Osa Goikoetxea, Eraman enpresako kirol zuzendaria

Eusko Label Winter Series Gernikako jaialdiak ospe handia hartu du eta, astelehenero, bete egiten da pilotalekua. Giro berezi horren inguruan ikuspegia azaldu zion Osak Aiurri astekariari: "esango nuke, bertan ez bazaude, imajinaezina dela bertan sortzen den giroa. 2.000 pertsona elkartzen dira Gernika Jai Alain. Oso pozgarria da hainbeste jende edukitzea, giro ederra izan ohi dugu astelehenero".

ANDOAINGO JAIALDIA

WINTER SERIES DESAFIOA	
Erkiaga-Lekerika	2
Basque-Barandika	0
EMAKUMEZKOAK	
Naroa-Maia	2
Elaia-Frida	1

Arrate pilotalekua ez da Gernika baina, hala ere, bertan badago zesta taldea. Horri buruzko iritzia ematea eskatu genion Osari: "Zalantzarik gabe pozgarria da Gazteleku Pilota Elkarteak egiten duen lana. Harrobi oso ona dago Andoainen. Gernikan ohitura daukagu, astelehenero, talde bat gonbidatzeko eta, duela bi urte, estreinekoz, Andoaingo eskola gonbidatu genuen. Aurreko astean gure artean izan ziren berriro. Uste dut etorkizun polit bat eduki dezaketela eskolak eta, denborarekin, aukerak izan ditzaketela profesionaletara salto egiteko".



Barandika, Arrate pilotalekuan. AIURRI

Arratsalde gogoangarria Arrate pilotalekuan













Urnietarrak denboraldi bikaina egiten ari dira. UKE

Urnieta Guria Jatetxearen nagusitasuna, Allurralden

Urnieta Guria Jatetxeak irabazi zuen (19-33) Leizaranen aurkako derbian

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietarrak nagusi izan ziren hasieratik amaierara, andoaindarrei ia aukerarik eman gabe. Garaipen honek Munttarpe hirugarren sailkatuarengandik puntu bakarrera kokatu ditu. Bera dela hurrengo aurkaria. Allurraldeko partidan defentsako intentsitateak kontraerasora ateratzeko baloiak berreskuratzea eta markagailuan lehen abantailak lortzea ahalbidetzen zien. Minutuak pasa ahala aldea handituz joan zen eta atsedenaldira 9-15 iritsi ziren. UKEkoek ez zuten erritmoa jaitsi aldageletatik igaro ondoren, lehen zatian erakutsitako maila altuari eutsiz. Kontzentrazioa galdu gabe, Leizaranen edozein erreakzio saihestu zuten.

Denborak aurrera egin ahala, markagailuko aldea handituz joango zen, azken 14 golen errenta gorenera iritsi arte. Partidu oso-osoa egin zuen Urnietak eta, horri esker, bi puntu garrantzitsu lortu ditu sailkapeneko goiko postuetan sendotzeko borrokan jarraitzeko.

1. LURRALDEKOA

ESKUBALOIA

Urnieta KE-Leizaran Ernio	19-33

SAILKAPENA

		P	J
1	Ordizia	17	10
2	Soraluce	17	10
3	Munttarpe	13	10
4	Urnieta	12	10
5	Aloña Mendi	12	10
6	Tolosa B	11	10
11	Leizaran	6	10

ASTEBURUAN

18:00 Tolosa B-Leizaran / *Larunbata*
17:00 Urnieta-Munttarpe / *Larunbata*

andoaINDARRA euskaraz



Artxiboko irudia. UKE

Liderrak sendo aritu ziren Andoainen eta Urnietan

Gorengo Mailako bi multzoetako liderrek Euskalduna eta Urnieta garaitu zuten

Erredakzioa URNIETA

1. multzoan Ostadar liderrak Urnietan jokatu zuen eta 0-2 garaitu zituen gorritxoak. Getariako taldea, bestalde, 2. multzoko lider sendoa da eta geroz eta alde gehiago ateratzen die aurkariei. Ubitarten 0-1 garaitu zuen Euskalduna. Asteburuan bi taldeak etxetik kanpo ariko dira.

GORENGO MAILA

9. JARDUNALDIA / 2. MULTZOA

Euskalduna-Getariako	0-1

SAILKAPENA

		P	J
1	Getariako	27	10
2	Euskalduna	20	10
3	Lazkao	16	10

ASTEBURUAN

16:30 Antzuola-Euskalduna / *Ig.*

9. JARDUNALDIA / 1. MULTZOA

Urnieta-Ostadar	0-2

SAILKAPENA

1. MULTZOA

		P	J
1	Ostadar	26	10
2	Touring B	24	10
7	Urnieta	14	10

ASTEBURUAN

18:30 Urnieta-Usurbil / *Lar.*



Fitz Roy. WIKIPEDIA

Mendi zinemaldia, Saroben, ostegunean eta ostiralean

Zanpatuz mendi elkarteak Amaia Agirre mendi zinemaldiko 3. edizioa antolatu du

Erredakzioa ANDOAIN

Zanpatuz mendi elkarteak Amaia Agirre mendi zinemaldiko 3. edizioa antolatu du, azaroaren 26rako eta 27rako. Bi emanaldiak iluntzeko 19:30ean izango dira, eta sarrera doakoa izanen da. Ez da izenik eman beharko aurrez emanaldiaz gozatzeko. Amaia Agirrerekin batera Ander Elustondo gazteari ere omenalditxoa egingo zaio. Jakina denez, "Elus" udan hil zen, Midi d'Ossau gailurrean jausi ostean.

Azaroak 26, osteguna.
19:30, Sarobe

Osteguneko emanaldiko arduraduna aski ezaguna da Urnietan: Txetxu Lete. Irakaslea herriko ikastolan, 8.000 metroko hiru tontor igo zituen 90. hamarkada bukaeran eta XXI. mendeko lehen hamarkadan: Wifi gabeko garaiak ziren haiek, eta belaunaldi berriei garai haiek nolakoak ziren erakusteko hasi da Lete iraganeko alpinismoaz mintzatzen.

Azaroak 27, ostirala.
19:30, Sarobe

Tasio Martin bizkaitarra da, eta Amaia Agirrek bezain ondo ezagutzen du Patagonia. Martxoan sekulako balentria gauzatu zuen Sean Villanueva eskalatzaile belgikarra lagun zuela: Fitz Roy mendiko ekialdeko ertza liberatzea. 1.200 metroko pareta da, 40 luze, hiru egun zintzilik eta 7c mailako zailtasuna.

Debuta, Moto 3 txapelketan

Moto3 txapelketan uste baino lehenago debuta egin du Beñat Ferndezek. Lasterketa amaituta, balorazioa egin zuen: "Lan handia egin dugu datorren urteko motorra ulertzeko. Oso itzuli baliotsuak asteburu honetan, eta oso lasterketa zaila baldintza txarrekin. Eskerrik asko @levelup_mta aukeragatik, dena emateagatik, eta asteburu osoan hain ondo tratatzeagatik! Eskerrak eman nahi dizkiet etxetik laguntza ematera etorri zareten guztiei, WhatsApp eta Instagram bidez idazten didatenei eta lasterketa ikusi eta nigan pentsatu duzuenei! Orain arte nire progresioaren parte izan diren guztiei ere bai".



MOTO 3

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Nekearen teoria
Erakusketa kolektiboa.
Bastero Kulturgunea.

ANTZERKIA

URNIETA "Me too"
Ainhoa Aierbe eta Tessa Andonegi.
Azaroak 29, igandea.
19:00, Sarobe. Dohainik.

ANDOAIN "Purgatorioa"
Las Wallpurguis konpainia.
Azaroak 29, igandea.
12:00, Bastero.

URNIETA "Nortasun Agiria"
Zuhaitz Gurrutxaga.
Abenduak 3, osteguna.
19:00, Sarobe.

MEZA

ANDOAIN Ospakizuna
Milagrosaren ospakizuna.
Azaroak 27, ostirala.
18:30, San Martin eliza.

HITZALDIA

ANDOAIN Liburu-aurkezpena
"Martxelo Otamendi, handira jotzeko kazetaritza" liburua aurkeztuko dute Andoainen. Hizlari Martxelo Otamendi ariko da. Aurkezlea, Ainara Arratibel.
Abenduak 1, asteartea.
18:00, Bastero Kulturgunea.



"Feminissimas".

ANDOAIN A25 hitzorduak
"Feminissimas" antzezlana. Obrak feminismoaren teoriaren eta eguneroko bizitzaren arteko kontraesanak aztertzen ditu.
Azaroak 27, ostirala.
19:30, Bastero Kulturgunea.

Itziar Zigak eta Itxaso Badellek sortutako Las Wallpurguis konpainiaren "De cuando existía el purgatorio" antzezpen esperimentala.
Azaroak 29, igandea.
12:00, Bastero Kulturgunea.

MUSIKA

ANDOAIN Kontzertuak
Tata&Denso, Txiltxoko.
Azaroak 27, ostirala.
Andoaingo Gaztetxea.

Naiz Presidente, Gailu, DJ K. Tapia.
Azaroak 28, larunbata.
Andoaingo Gaztetxea.


ANDOAIN Gabon Jaialdia
Miajon de Castuosen eskutik.
Azaroak 28, larunbata. 12:00.
Bastero Kulturgunea.

MENDIA

URNIETA Ikus-entzunezkoa
Amaia Agirre Mendi Zinemaldia: "Gasherbrum II", Txetxu Lete. Proiekzioa eta solasaldia.
Azaroak 26, osteguna. 19:30,
Sarobe.

URNIETA Ikus-entzunezkoa
Amaia Agirre Mendi Zinemaldia: "Coincidencias Patagonicas", Tasio Martin. Proiekzioa eta solasaldia.
Azaroak 27, ostirala. 19:30,
Sarobe.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Los rivales de Amziah King
Azaroak 28, larunbata. 19:30.
Azaroak 29, igandea. 19:30.

Azaroak 30, astl. 17:00, 19:30.
Katu kapeladuna
Azaroak 28, larunbata. 17:00.
Azaroak 29, igandea. 17:00.



FITXA TEKNIKOA ETA SINOPSIA

Los rivales de Amziah King
Zuzendaria: David P. Sañudo. **Aktoreak**: Matthew McConaughey, Angelina LookingGlass, Kurt Russell, Cole Sprouse, Owen Teague, Scott Shepherd, Tony Revolori, Rob Morgan, Jake Horowitz, Harrison Stone, Chip Carriere, Bruce Davis, Joey Shear...
Herrialdea: AEB (2026). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Iraupena:** 130 m.
Generoa: Thrillerra.



Matthew McConaughey, pantailan

Oklahomako landa-eremuko basoen sakon-sakonean, Amziah King karismatikoak, musikari trebeak, bluegrass musika jotzen duen talde bat zuzentzen du. Herriko ezti-ekoizpeneko ustiapen nagusia ere haren ardurapean dago. Kateri, Amziahren alaba adoptatua, etxera itzultzen denean, aitak bien arteko harremana berritu eta familia-negozio bat sortu nahi du. Baina eztiaren negozioa ez da batere samurra, eta Amziahren aurkariek dena suntsitzeko mehatxua egingo dute, urteetan eraikitako guztia arriskuan jarriz.

Herriko artistak eta sortzaileak, Gabonetako Azokan

Larramendi Bazkunak, iaz egin bezala, azoka antolatuko du Andoaingo Kale Berrian eskuratu duen egoitza berrian. Herriko artista eta sortzaileei eman nahi die lehentasuna, abenduaren 11tik 13ko hitzorduan. Interesatuek izena eman behar dute harrera@larramendikulturbazkuna.eus e-postara idatziz edo 688 718 916 telefonora deituz.

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Urnietako udala

ANTZERKIA

Nortasun Agiria
Protagonista: Zuhaitz Gurrutxaga. **Agertokia**: Sarobe. **Data:** Abenduak 3. **Ordua:** 19:00. **Sarrera:** 7 euro. **Konpainia:** Txalo.



Gurrutxaga, oholtzan

Aurreko bi bakarlanetan bezala, oraingo honetan ere, egiazko bizipen pertsonaletan oinarrituko da eta, besteak beste, bikote erlazio haustura batek sortutako minaz, euskaldun ona izatera iristea zein den zailaz, edota TOC (Nahasmendu Obsesibo Konpultsiboa) gaitza pairatzeak sexu harremanetan eragin ditzakeen buruhausteez ariko da.

Zuhaitz Gurrutxaga futbol jokalari profesionala izan zen eta, geroztik, hainbat lanetan murgildu da telebistan eta agertokietan.



Aitor Mendiluze. AIURRI

Abenduaren 20ko finalean egon nahi du Mendiluzek

Donostiako finalaurrekoan nagusitasun handia erakutsi zuen andoaindarrak

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoen bigarren itzuliko lehen saioa jokatu zen larunbatean Donostian eta Aitor Mendiluze izan zen garaile, 760 punturekin. Orain, zain egotea tokatzen zaio, abenduaren 5era arte ez baita finalik itxiko. Finalerako sailkatuko balitz, haren zazpigarren finala biziko luke Nafarroa Arenan.

Lanak amaituta, hauxe izan zen agurrean bota zuen bertsoa: *"Irribar batez agurtzeko gaur noski nik det errezena. Besarkada estu goxo bat denoi hasieratik zor zena. Gaur bai bi aldiz izutu gabe egin det bide zuzena: hitz bakoitzari gehituz gogoa, esperientzia, sena. Nere argitan, nire ilunekin, horixe da ni naizena".*

Beste bi saio geratzen dira Iruñeko final handia iritsi aurretik. Asteburu honetakoa, Gasteizen. Eta, hurrengoa, Bilbon. Araban kantari ariko dira Aitor Bizkarra, Ane Labaka, Beñat Gaztelumendi, Maddi Ane Txoperena, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina. Bizkaian, aldiz, Alaia Martin, Amets Arzallus, Miren Artetxe, Nerea Elustondo, Oihana Iguaran eta Xabat Illarregi.



Euskal Herrian, Taupa mugimenduak hitzordu bateratua egitea proposatu du. TAUPA

Euskararen egunarekin bat egiteko deialdia, eragileei

Andoainen bat egingo dute Taupa mugimenduaren leloarekin: "Guri toki guztietan egitea gustatzen zaigu"

Erredakzioa ANDOAIN

Abenduaren 3an, ostegunarekin, kalejira antolatu dute. 18:30ean abiatuko da Goikoplazatik eta Zumea plazan amaituko da 20:00ak aldera. Bidean, geldialdiak egingo dituzte Plaza Morean eta Zehar Kai-muturrean.

Euskal Herrian, Taupa mugimenduak hitzordu bateratua egitea proposatu du eta Andoaingo Udalak eta euskal eragileek bat egingo dute. Hala, Andoaingo elkarte eta klubei ekimenarekin bat egiteko deialdia luzatu diete.





PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako irabazleak eta finalistak, ostiral gauean, Bastero Kulturguneko auditorioan. Argazki sorta eta hitzhartzeen hainbat bideo Aiurri.eus webgunean. AIURRI

Kazetaritza sari gorena

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien 2026ko sari banaketa ekitaldian epaimahaiak Ohorezko Mugarria eman zion Arritxu Iribar Egaña kazetariari. Kazetaritza Saria Zigor Olabarrietak irabazi zuen eta, aldiz, Ni.eus ekimenak, Komunikazio Saria

Xabier Lasa ANDOAIN

Arritxu Iribarren eta Andoni Alvarez alkatearen hitzartzeak izan ziren Bastero Kulturguneko oholtza gainean. Ekitaldian, ohi bezala, bi sari banatu zituzten.

Zigor Olabarria, Kazetaritza Saria

Argia aldizkarian argitaratutako "Oldarraldia" izenburuko kazetaritza lanari eman diote Kazetaritza Saria Zigor Olabarria Oleagari. Azken urteetan, EAEko lanpostu publikoetarako hizkuntza eskaeren kontra epaileek hartu izan dituzten erabakien atzean dagoena ikertu du kazetariak, hiru ataletan.

Errenteriako Udalaren lan deialdia aztergai hartuta, helegite horien atzean hainbat pertsona eta talde antolatu daudela frogatu ahal izan du, hiru urteko iraupena izan duen ikerketaren ostean. Epaimahairen ustez, "ikerketa kazetaritzaren adibide garbi bat da honakoa, aurretik euskal gizartean zabalduta zegoen kezka bati erantzun diona".

NI.EUS, Komunikazio Saria

Puntu Eus Fundazioak, Iametzak eta Azkue Fundazioak sustatutako ekimena da, eta euskarazko posta eta hodeia eskaintzen duen zerbitzua da. Posta elektronikoa, fitxategiak gorde eta editatu, eta egutegia zein kontaktuak kudeatzeko aukera ematen du, dohainik. " Ni.eus-ek eremu digitalean euskaraz aritu eta aurkezteko gabezia historikoari erantzuten dio. Euskaraz bizitzeko funtsezko baliabidea eskaintzen du" adierazi du epaimahiak.



Arritxu Iribarrek Mikel Arregiren eskutik jaso zuen Ohorezko Mugarria aipamena.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien Gala
Kronika eta irabazleen adierazpenak.
ARGAZKI-BILDUMA, BIDEOAK
www.aiurri.eus